



## Birgaitze-prozesuan laguntzea

Jon Laurenz, Nerea Sarasola  
**RENER**

2023



©

**ALOKABIDE | Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publikoa, etxebizitzak gizartean betetzen duen eginkizuna garatzen duena, alokairurako politikaren bidez**

**ARGITARATZAILEA:**

**ALOKABIDE, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestua alokatzeko sozietate publikoa Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila**

Gamarrako Atea 1A, 2. solairua (El Boulevard eraikina) 01013 Vitoria-Gasteiz

araba@alokabide.eus | bizkaia@alokabide.eus | gipuzkoa@alokabide.eus

www.alokabide.eus

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ingurumen-lurralde-plangintza-etxebizitza-saila/>

**ARGITARALDIA:**

2023ko abendua

**EDUKIA:**


Dokumentu hau ALOKABIDEk egin du.



Liburu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 3.0 Unported (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)



<b>0. Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>1. Komunitateak aktibatzea .....</b>	<b>7</b>
<b>2. Inkestaren bidezko diagnostikoa.....</b>	<b>9</b>
2.1 Jabea .....	10
2.2 Maizterrak .....	11
<b>3. Jabearentzako laguntza-baliabideak identifikatzea.....</b>	<b>13</b>
<b>4. Alokabidek proposatzen duen birgaitze-proiektuaren irismena azaltzea .....</b>	<b>16</b>
<b>5. Obran zehar laguntzea .....</b>	<b>20</b>



# 0. SARRERA



## 0. Sarrera

### Norentzat

JABEARENZAT

MAIZTERRENTZAT

BIENTZAT




### Helburuak

- Birgaitze energetikoari begira **jabeen eragozpenak murriztea**.
- **Jabeen eta maizterren** beharrak eta mugak biltzea.
- **Baliabideekin laguntzea**: laguntza ekonomikoari buruzko informazioa, etab.
- Eraikinean bizi diren **pertsonen ikuspegiari** balioa ematea, eta, ondorioz, birgaitzearen ikuspegi teknikoa aberastea. Eraikinean bizi den pertsona oro **birgaitzearen partaide bihurtzea**, erabakiak hartzean balioetsiak sentitzeko.
- **Itxaropenen kudeaketa** kontrolatzea.



## 0. Sarrera


### Kasua hasieran kudeatzea





## 0. Sarrera

### Kasua hasieran kudeatzea



**JABEARENTZAT**  
**MAIZTERRENTZAT**  
**BIENTZAT**

# 1. KOMUNITATEAK AKTIBATZEA







## 1. Komunitateak aktibatzea

### Helburua

- Birgaitu dezaten jabeen komunitateari **mugiaraztea**
- Komunitateari adibideekin **inspiratzea**
- Birgaitzearen **onurak helaraztea**

### Zer kontatu dezakegu?

1. **Etxebizitzen parkea birgaitzeko planarekiko** sarrera: Alokabidek etxebizitzen parkea birgaitzeko plana du, eta bizilagunen komunitate horrekin esku-hartzea **adostu** nahiko luke.
2. Beste birgaitze batzuen **adibideak**: Oso informazio erraza izan behar da: aurreko eta ondorengo irudiak, obraren irudiak. Argitu behar da fase honetan oraindik kostuak zehaztea zaila dela, eta onurei erreparatu behar zaie: aurrezki ekonomikoak, erosotasuna hobetzea, osasuna hobetzea, higiezinaren balioa gehitzea, itxura hobetzea, leiho berrien eta instalazio seguruagoen bidez segurtasuna hobetzea, mantentze-lanak murriztea.
3. **Birgaitze-prozesuaren faseak** deskribatzea: Oso erraz azalduko dira urratsak: proiektua kontratatzea, proiektua idaztea, obra adjudikatzea, obra egikaritzea.
4. **Birgaitze-prozesuan laguntza-faseak** eta eskura dauden baliabideak deskribatzea. Horiek Alokabidek jarriko lituzke abian.
5. **Datu pertsonalak biltzea**: jabeen eta, hala baleude, maizterren helbide elektronikoak, telefonoak, etab. eta etorkizuneko jakinarazpenei begira datuak erabiltzeko baimena.

## 2. INKESTAREN BIDEZKO DIAGNOSTIKOA





## 2. Inkestaren bidezko diagnostikoa

### 2.1. JABEARENTZAT

#### Helburua

- Jabeen komunitatea ezagutzea
- Birgaitzeko orduan **aliatuak** eta **mesfidatiak** antzematea.
- Birgaitzearen aldeko **aurretiko jarrera** eta **itxaropenak** identifikatzea.
- Mesfidantzarako **oztopoak** eta arrazoiak **identifikatzea**, gerora indargabetzeko baliabideak erabiltze aldera.
- Pertsonen **laguntzeko beharrak** detektatzea; teknikoak edo ekonomikoak.
- Adina eta mugikortasun urria direla bide, haurrak direlako edo irisgarritasuna bermatuta izan behar dutelako, **obrarekiko bereziki sentiberak diren pertsonak** identifikatzea.
- **Komunikazio-kanal** egokiak ezartzea.

#### Zer lortuko dugu hurrengo bileran erabiltzeko?

1. Aliatuen zerrenda
2. Mesfidatien zerrenda
3. Erkidegoari laguntzeko behar nagusiak
4. Obrarekiko pertsona sentiberen beharrak
5. Komunikatzeko erak



## 2. Inkestaren bidezko diagnostikoa

### 2.2. MAIZTERRENTZAT

#### Helburua

- Birgaitzearen ikuspegitik maizterren komunitatea ezagutzea.
- Maizterren komunitateak duen **kultura energetikoa** ezagutzea.
- Eraikinari dagokionez **beharrak** identifikatzea: Maizterrentzat berritzea garrantzitsua den eraikinaren alderdiak.
- Adina eta mugikortasun urria direla bide, haurrak direlako edo irisgarritasuna bermatuta izan behar dutelako, **obrarekiko bereziki sentiberak diren pertsonak** identifikatzea.
- **Komunikazio-kanal** egokiak ezartzea.

#### Zer lortuko dugu laguntzeko?

1. Berritzeko orduan maizterrentzako garrantzitsuak diren alderdiak eta, ondorioz, diseinuan kontuan hartu daitezkeenak.
2. Obrarekiko pertsona sentiberen beharrak
3. Obraren ondoren eraginkortasunez erabiltzeko behar nagusiak



## 2. Inkestaren bidezko diagnostikoa

### **PROIEKTUAREN IRISMENARI ERAGIN DIEZAZKIOKEEN ALDERDIEI BURUZKO INKESTAN SARTU BEHAR DIREN GALDEREN ADIBIDEAK:**

1. Eraikina birgaituz gero (ez etxebizitzaren barrualdea), zein dira zure ustez berriro behar diren elementu garrantzitsuenak:
  - Kaletik etxebizitzaraino arrapalen, igogailuaren, eta abarren bidez dagoen irisgarritasuna
  - Ataria hobetzea
  - Eraikinaren hobekuntza energetikoa berokuntzan gutxiago kontsumitzeko
  - Eraikina hobetzea udako beroa saihesteko
  - Instalazio amankomunak berritzea, hala nola keen irteerak
  - Beste batzuk \_\_\_\_\_
2. Gustuko zenuke lorategi txiki bat eremu amankomunean?
  - Bai, baina ez nituzke zaintzeko denborarik eta baliabiderik izango.
  - Bai, eta zaintzeko prest nengoke.
  - Ez.
3. Aipatu honako eremu hauetatik interesgarriak iruditzen zaizkizunak:
  - Eraikinaren kanpoaldean, inguruneak
  - Teilatu laua
  - Fatxada eta balkoiak
  - Eremu amankomunak
  - Komunitatearen lokalak

### 3. JABEARENTZAKO LAGUNTZA-BALIABIDEAK IDENTIFIKATZEA





### 3. Jabearentzako laguntza-baliabideak identifikatzea

#### Helburua

- Komunitateak behar dituen gaietan trebatu edo informazioa eskuratzea birgaitze-prozesua abiarazteko prest dagoenean.
- Balizko birgaitzea hasi baino lehen komunitatean oztopo diren gaietan trebatu eta informazioa eskuratzea.


#### Baliabide eskuragarriak

1. Prozesu osorako komunikazio-kanala: erabaki baino lehen, diseinuan.
2. Alokabideren beste esperientzia batzuen adibideak.
3. Laguntza pertsonalizatua telefonoz edo helbide elektronikoz.
4. Laguntzei buruzko informazioa.
5. Finantzaketari buruzko informazioa.



### 3. Jabearentzako laguntza-baliabideak identifikatzea

#### Komunitatea Alokabideren laguntza teknikoarekin



**Ulertu dudaren arabera, prozesu hau obra kontratatzeko errepikatuko da.**

- JABEARENTZAT
- MAIZTERRENTZAT
- BIENTZAT



## 4. ALOKABIDEK PROPOSATZEN DUEN BIRGAITZE- PROIEKTUAREN IRISMENA AZALTZEA





## 4. Alokabidek proposatzen duen birgaitze-proiektuaren irismena azaltzea

### Helburua

- Komunitateak **laguntza teknikoak (ALOKABIDE) kontratatu behar duen proiektuaren irismena onartzea.**

### Zer kontatu dezakegu?

**Banan-banan** azalduko dira **birgaitze-proiektuaren barnean sartu daitezkeen elementuak**, oso modu errazean eta beste esku-hartze batzuetako adibideen argazkiekin/irudiekin:


- Fatxada: Proposamenaren deskribapena eta zergatik proposatzen den.
- Teilatua: Proposamenaren deskribapena eta zergatik proposatzen den.
- Instalazioak: Proposamenaren deskribapena eta zergatik proposatzen den.
- Irisgarritasuna: Proposamenaren deskribapena eta zergatik proposatzen den.
- Berdeguneak: Proposamenaren deskribapena eta zergatik proposatzen den.

Kostuak eta finantzaketa: Proiektuaren kostu zenbatetsia, laguntzak eta derramak.



## 4. Alokabidek proposatzen duen birgaitze-proiektuaren irismena azaltzea


### Komunitatea Alokabideren laguntza teknikoarekin





## 4. Alokabidek proposatzen duen birgaitze-proiektuaren irismena azaltzea

### Obra/zerbitzua garatzea (SPR3C2\_P13\_FL03)



## 5. OBRAN ZEHAR LAGUNTZEA





## 5. Obran zehar laguntzea

### Helburua

- Jabeen erkidegoari eta bizilagunei obrek sortuko dituzten eragozpenetarako **prestatzea**
- Jabeen erkidegoari eta bizilagunei honako hauen **berri ematea**:
  - Eraikinean bizi diren pertsoneri zuzenean eragiten dizkieten **gorabeherak** eta **mugarriak**, prestatu ahal izateko
  - Obraren **aurrerapenak**, lanek aurrera egiten dutela antzemateko
- Pertsonak **lagunduta** eta informatuta **sentitzea** eta harremanetan jartzeko solaskide argia izatea.


### Zer kontatu dezakegu?

- Obra hasi baino lehen:
  - Honako hauek jakinaraztea: Aurreikusita dagoen obraren hasierako / amaierako data
  - Lanen gutxi gorabeherako plangintza
  - Ohiko lan-ordutegia
  - Obraren eragozpenak eta minimizatzeko gomendioak adieraztea
  - Zalantzetarako solaskidea
- Obrak gauzatzen ari diren bitartean:
  - Etxebizitzaren erabileran eragingo duten mugarriak
  - Gorabeherak
  - Aurrerapausoak



## 5. Obran zehar laguntzea

### Obra hartzea (SPR3C2 P13 FL04)



**6. OBRAREN BUKAERARI BURUZKO INFORMAZIOA**

- Azken kostuak
- Finantza-egoera, ordainketak egiteke, laguntzak
- Prozesuaren feedback-a jasotzea

**7. ERABILTZEKO ORDUAN AZKEN LAGUNTZA**

- Erabilera-eskuliburuak helaraztea
- Erabilera efizienterako gomendioak
- Instalazio berriak erabiltzeko trebatzea
- Erabilerari buruzko jarraibideak eta aholkuak
- Laguntzaren feedback-a jasotzea

**8. PROZESUAREN FEEDBACK-A URTEBETE IGARO ONDOREN**

- Birgaitzeari buruzko gogobetetasuna baloratzea
- Laguntza-prozesuari buruzko gogobetetasuna baloratzea

- JABEARENZAT
- MAIZTERRENTZAT
- BIENTZAT



## 5. Obran zehar laguntzea

### Kasua hasieran kudeatzea

